Usurbilgo Udala

ID.05/2022-0119
2022DEKR0326

USURBILGO ESKOLETAN HEZKIDETZA ETA HERRIAN BERDINTASUNA ETA TRATU ONA BULTZATZEKO ZERBITZU KONTRATUA

-BALDINTZA ADMINISTRATIBOEN PLEGUA-
- Prozedura irekia eta izapide arrunta

I.- KONTRATUAREN EDUKIA

1.- KONTRATUAREN XEDEA.

1.- Kontratu honen helburu nagusia da USURBILGO ESKOLETAN HEZKIDETZA ETA HERRIAN BERDINTASUNA ETA TRATU ONA BULTZATZEKO ZERBITZUA, aurrekontuaren eta plegu teknikoetan ezarritako baldintza teknikoen arabera.

CPV Kodea: 98200000-5-Aukera-berdintasunari buruzko aholkularitza-zerbitzuak

2.- Kontratuaren xedeak lote bakarra du.

3.- Ez da onartuko eskaintza alternatiboen proposamena.

4.- Kontratuaren arduraduna izango da: Parekidetasun teknikaria.

2.- KONTRATUAREN IRAUPENA.

Prestazioa burutzeko epea hau izango da: Bi urtekoa, kontratua sinatu eta hurrengo egunetik kontatzen hasita (kontratuaren data aurreikuspena 2022ko iraila da, zerbitzua ikasturteari lotuta egon dadin).

Dena den, kontratazio organuak kontratua beste bi urtez luzatu ahal izango du, ikasturtez ikasturte, hortaz, gehienez ere lau urtetako iraupena izango du (2022/23 ikasturtetik hasi eta 2025/2026 ikasturtera arte). Kontratuaren luzapenik ez bada egingo, kontratazio organuak 2 hilabete lehenagoko aurreabisua eman beharko du.

3.- KONTRATUAREN AURREKONTUA.

Zerbitzua astelehenetik ostiralera emango da, eta hori da baloratuko den prezioa. Ondoren zehazten dira zerbitzuko gehienezko prezioak:

- Saioaren biderat zailearen ordukako prezioa: orduko 76 euro + %21eko BEZa = 76+15,96 = 91,96 €
- Koordinatzailearen ordukako prezioa: orduko 38 euro + %21eko BEZa = 38+7,98 = 45,98 €

Plegu teknikoetako 4. atalean zehazten den moduan, esku-hartzea astelehenetik ostiralera egingo da jarraian zehaztutako ordu kopurutan zerbitzua emango da urte bakoitzean:

- Esku-hartze zuzena, saio bideratzailearen bidez: 300 ordu urtean.
- Koordinazioa, koordinatzailearen bidez: 100 ordu urtean.

Urte oso batetarako estimaturiko kopuruak dira, BEZ-ik gabe, koordinazioa 3.800 euro (BEZ barne 4.598 euro) eta zuzeneko eskuhartzea 22.800 euro (BEZ barne 27.588 euro), hau da, denetara 26.600 euro (%21eko BEZ barne 32.186 euro).

Guztira, lehen bi urtetarako 53.200 euro dira BEZ-ik gabe. 64.372 euro BEZa barne da aurrekontua.

Luzapen guztiak kontuan hartuz, lau urtetarako kontratuaren balorea BEZ-ik gabe 106.400 euro dira. %21 BEZ 22.344 euro dira, hortaz guztira, BEZ barne, 128.744 euro.

Lizitatzaileek egiten dituzten proposamenetan, ulertuko da ondorio guztietarako sartuta daudela kontrata-prezioak ez ezik, kontzeptu ezberdinak zergapetzen dituzten era guztietako zergak ere. Hala ere, Balio Erantsiaren Gaineko Zergak banakatua agertu beharko du eskaintzetan, kontratuari bere arautegi arautzailearen arabera aplikagarri zaizkion tipoa eta zenbatekoa adieraziz.

4.- FINANTZAZIOA.

Kontratuaren prezioa ordaintzeko behar beste diru jarri da aurtengo ekitaldiko aurrekontuan honako kontularitza partiden kargura: 1.8100.227.231.50.04 (A 1324-2022) eta 1.8100.227.231.50.04 (A 1520-2022).

Bestalde, etorkizuneko ekitaldietako aurrekontuetan behar adina kreditu jarriko du aurrekontu gaietan eskumena duen organoak.

5.- ORDAINKETA MODUA.

Aurreko hilabetean egindako ordu kopuruari dagokion faktura aurkeztu beharko du esleipendunak, eta indarrean dauden xedapenetan ezarritako izapideak beteta eduki. Urtean 10 faktura egingo dira, irailetik ekainera arte, biak barne.

Abenduaren 27ko 25/2013 Legeak xedatzen duenaren arabera, faktura elektronikoa emateko derrigortuta dauden entitateek fakturak Usurbilgo Udalari formatu elektronikoan bidali beharko dizkiote Gipuzkoako Foru Aldundiaren Faktura Elektronikoen Sarrera Puntu Orokorraren bidez, (https://www.gfaegoitza.net/SarreraPuntua), Usurbilgo Udala atxikituta baitago, horretarako Usurbilgo Udalaren DIR3 kodeak erabiliz.

1. Kontabilitate Bulegoa: LO1200739

2. Organo kudeatzailea: LO1200739
3. Unitate izapidetzailea: LO1200739

6.- PREZIOAK BERRAZTERTZEA.

Kontratu honen prezioa ez da berraztertuko.

7.- BERMEAK.

1.- Ez da behin-behineko bermerik eskatzen.

2.- SPKLren 145. artikuluak ezarritakoaren arabera eskaintzarik hoberena aurkezten duen lizitatzaileak %5 behin betiko bermea jarri beharko du Udalaren Kutxan.

Berme hori jartzeko epea 10 egun baliodunekoa izango da, bermea jartzeko jakinarazpena egiten zaion egunetik aurrera kontatuta.

Jarritako bermea itzultzeko eskatu ahal izango du esleipendunak, kontratua egikaritzen amaitutakoan eta, bere kasuan, bermealdia amaitu denean.

3.- Sektore Publikoko Kontratuen Legea onartzen duen, azaroaren 9ko 9/2017 Legearen 108. artikuluan baimendutako edozein modutan (esku-diruz, Zor Publikoko balioez, abalez edo kauzio aseguruz) eta indarrean dagoen legeriak araututako baldintzetan eman ahal izango dira bermeak.

II.- KONTRATAZIOA EGITEKO PROZEDURA

8.- ESLEITZEKO PROZEDURA ETA BALORAZIO IRIZPIDEAK

Proposamenak baloratzeko eta eskaintza onena zein den erabakitzeko, esleipen irizpide anitzak baloratuko dira, guztiak formula bidez kalkulatzen direnak.

MODU AUTOMATIKOAN ZENBATETSI DAITEZKEEN IRIZPIDEAK: gehienez 51 puntu ("C" artxibo elektronikoa)

8.1.- PREZIOA : gehienez 45 puntu

Orduko gehienezko prezioa (BEZ-ik gabe) 76 euro izango dira. Prezio hori eskaintzen duenak 0 puntu izango ditu.

Gainerako eskaintzak puntuatzeko honako eragiketa hau egingo da: puntuazio onenari kenduko zaio beherapenaren ehunekoaren eta eskaintza merkeenaren arteko aldea. Eskaintza baten beherapena aterako da honela:

-Ehun eta diru-eskaintza bakoitzak lizitazio-prezioarekiko ematen duen ehunekoaren arteko aldea kalkulatuz honako formularen arabera: 100x (1-proposamena/lizitazioa).

"Beherapen" handiena duen proposamenari "A beherapena" esango diogu eta gehieneko puntuazioa emango diogu, hau da, 45 puntu. Gainerako proposamenak (B) honako formularen arabera haztatuko dira.

45 – (A beherapena – B beherapena) eta zero (0) puntuazioa emango zaio eragiketa horren emaitza negatiboa bada.

Diru-eskaintzetan egon daitezkeen gehiegizko jaitsierak SPKL-ko 149.4 eta 1098/2001 Errege Dekretuak onartzen duen Erregelamenduko 85. artikuluan finkaturiko irizpideen arabera baloratuko dira.

8.2.- ZERBITZUA EMANGO DUTEN LANGILEEN ESKARMENTUA (LCSP 145.2.2): gehienez 6 puntu

Langile bakoitzaren eskarmentua, kontratuaren xedearekin erlazionaturik egonez gero: urte bakoitzeko puntu 1, gehienez ere 6 puntu guztira. Langileen esperientzia hau akreditatzen duen enpresako ziurtagiriak aurkeztu beharko dira.

BALIOESPEN TEKNIKO BATEN BAITAKOAK DIREN IRIZPIDEAK: gehienez 49 puntu ("B"ar-txibo elektronikoa)

Lizitatzaileek ez dute, inolaz ere, "B" artxibo honetan datu ekonomikorik adieraziko, ezta formula bidez automatikoki balioetsi daitezkeenik ere.

8.3.- MEMORIA TEKNIKOA: gehienez 49 puntu

Gutxieneko 25 puntuko puntuazioa eskuratu beharko da.

Memoriak gehienez A4 formatuko, 20 orrialde, bi aldeetatik, izango ditu, eta jarraian finkatutako egitura jarraitu beharko du.

- Oinarri teorikoa, lan filosofia eta metodologia (gehienez 3 puntu).
- Irakasle, ikasle eta gurasoei zuzendutako formakuntzari dagokionez jorratuko diren gaiak eta burutuko diren jarduerak(gehienez 20 puntu).
- Herriko eragile eta talde ezberdinekin egingo den lanaren inguruko proposamena (gehienez 14 puntu).
- Koordinazio proposamena udaleko arlo eta herriko baliabideekin (gehienez 5 puntu).
- Indarkeria sexistari aurre egiteko eta nerabei egokitutako egun dauden baliabide eta/edo zerbitzuen zerrenda (gehienez 2 puntu).
- Egitasmoa sistematizatu eta ebaluaziorako proposamena (gehienez 2 puntu).
- Usurbilgo errealitatera egokitzen den proposamena (gehienez 3 puntu).

Baldin eta aurkeztutako "memoria teknikoa" dokumentuak gainditzen badu adierazitako, oro har,adierazitako orrialde kopurua, memoriari dagozkion balioespen-irizpideak orri kopuruaren mugara arte soilik balioetsiko dira.

Orrialde kopuru horretatik aurrera 0 puntu emango dira.

9.- KONTRATATZEKO AHALMENA ETA KAUDIMENA.

Kontratatzeko prozedura honetan parte hartu ahalko dute, gaitasun juridikoa nahiz jarduteko osoa izanik, beren kaudimen ekonomiko, finantzario eta tekniko edo profesionala egiaztatzen duten pertsona natural edo juridikoek, Sektore Publikoko Kontratuen azaroaren 8ko 9/2017 Legeko 71. artikuluan kontratatzeko ezartzen diren debekurik ez dutenak.

Halaber, beren kabuz edo baimendutako pertsona batek ordeztuta aurkeztu ahalko dira, horretarako emandako nahiko ahala duena. Pertsona juridiko bat ordeztuz hartako kideren bat aurkezten denean, pertsona horrek dokumentuekin justifikatu beharko du horretarako gaitasuna duela. Kasu batean zein bestean, ordezkariari kontratatzeko ezintasun kausa horiek eragiten die.

Gainera, pertsona juridikoek kontratu honetako xedearekin harreman zuzena duten jarduerak burutzea izan behar dute helburutzat, eta kontratua behar bezala egikaritzeko behar adina elementu pertsonal zein materialekin hornitutako antolaketa bat izan beharko dute.

Kontratatzeko ahalmena eta kaudimena ENPRESA ESLEIPENDUNAK SOILIK egiaztatuko du, dokumentu hauek aurkeztuta:

9.1.- Enpresariaren eta, hala badagokio, haren ordezkariaren izaera juridikoa egiaztatzeko dokumentuak.

Izaera egiaztatzeko honakoak aurkeztu beharko dira:
- Nortasun Agiri Nazionala pertsona lizitatzaileak bere izenean jarduten baldin badu.
- Beste pertsona edo erakunde bat ordezkatuz jardunez gero, Nortasun Agiri Nazionala eta ahalordetze-eskritura aurkeztu beharko dira. Dokumentazioa kalifikatzeko egintzan, botere-askiespenera joko da, ofizioz.
- Lizitatzailea pertsona juridikoa denean, eraketa- edo aldaketa-eskritura, hala badagokio, Merkataritza Erregistroan behar bezala inskribatuta, eta Identifikazio Fiskaleko Zenbakia, inskripzioa aplikagarri den merkataritzako legeriaren arabera eskagarria denean. Hori eskagarria ez bada, jarduteko gaitasuna eraketaren eskritura edo agiriaren, estutuen edo fundazio aktaren bitartez egiaztatuko da, horretan jasota egongo baitira pertsona juridikoaren jarduera erregulatzen duten arauak. Horiek, hala dagokionean, dagokien Erregistro ofizialean inskribatuta egongo dira. Europar Batasuneko Estatu kideetako enpresari ez espainiarren kasuan, erregistro profesional batean edo merkataritzako erregistro batean inskribatuta daudela egiaztatu beharko dute eskakizun hori dagokion Estatuko legerian eskatzen denean.
- Enpresari ugari lizitaziora aurkezten baldin badira Enpresen Aldi Baterako Elkarketa eratuz, horietako bakoitzak bere ahalmena eta kaudimena egiaztatu beharko du aurreko puntuetan ezarritakoaren arabera. Era berean, ABEE bat modu formalean eratzeko konpromisoa helarazi beharko dute, esleipendun suertatuz gero. Halaber, proposamenean ABEE elkarketako kide bakoitzak beteko duen xedearen zatia adieraziko dute, kaudimenarekin lotuta bakoitzaren betekizunak zehaztu eta egiaztatze aldera.

9.2- Sektore Publikoko Kontratuen azaroaren 8ko 9/2017 Legeko 71. artikuluan kontratatzeko zerrendatzen diren debekurik ez izatearen berariazko adierazpen arduratsua.

9.3.- Indarreko xedapenek agindutako zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzakoak betetzearen berariazko adierazpen arduratsua.

9.4.- Atzerriko enpresek edozein ordenatako Espainiako epaitegi edo auzitegietako jurisdikzioaren

mende jarriko direla adierazi beharko dute, kontratuarekin zerikusi zuzena edo zeharkakoa duten gorabehera guztietarako, eta, hala badagokio, enpresa lizitatzaileari egokitu dakiokeen atzerriko jurisdikzioari uko egingo diotela ere bai.

9.5.- Bermea: ezarri izanaren ziurtagiria.

9.6.- Erantzunkizun zibileko asegurua: kontratatutako enpresa izango da kontratua egikaritzeko egin beharreko eragiketen ondorioz eragiten diren kalte eta galeren erantzule, Sektore Publikoko Kontratuen Legeko 196. artikuluan xedatutakoari jarraiki.

9.7.- Kaudimena:

- Kaudimen ekonomiko eta finantzarioa: Kontratatu nahi den eremuari dagokion Lizitatzailearen urteko negozioen bolumena, azkeneko hiru urteetako bolumen handieneko urteari dagokiona, gutxienez 25.000 €.

- Kaudimen teknikoa:

1. Azken hiru urteetan emandako zerbitzuak, eta adieraziko dituzte haien zenbatekoa eta destino publikoa edo pribatua, eta horiek gehituko zaizkie horiei buruzko ziurtagiriak. Azken hiru urteetan objetu berdina eta urteko 20.000 euroko fakturazioa duen kontratu bat burutu izana.
2. Zerbitzuan lanean arituko diren langileak bi izango dira. Zerbitzuaren beharrek hala eskatuta, aurkeztutako teknikarietako bat emakumea izango da eta bestea gizonezkoa:
    - Koordinatzailea. Beharrezko titulazioa:
        - Orientazio gisa, eta inola ere ez murriztaile gisa, baliozkoak izango dira goimailako unibertsitate ikasketak edo erdi-mailakoak Humanitate eta Gizarte Zientzien eta Zientzia Juridikoen arloetan; halaber, baliozkoak izango dira Gizarte eta Kultura Zerbitzuetako eta Komunitaterako Goi Mailako Lanbide Heziketako ikasketak, etab.
        - Emakume eta gizonen arteko berdintasunaren arloan gutxienez 150 orduko prestakuntza espezifikoa (titulazio ofiziala):
        - Euskara: Europako Erreferentzia markoaren C1 gaitasun maila.
        - Sexu Delitugileen aurrekari eza frogatzen duen agiria aurkeztu beharko dute langileek.

    - Saioetako bideratzailea (ez bada koordinatzailea). Beharrezko titulazioa:
        - Orientazio gisa, eta inola ere ez murriztaile gisa, baliozkoak izango dira goimailako unibertsitate ikasketak edo erdi-mailakoak Humanitate eta Gizarte

Zientzien eta Zientzia Juridikoen arloetan; halaber, baliozkoak izango dira Gizarte eta Kultura Zerbitzuetako eta Komunitaterako Goi MailakoLanbide Heziketako ikasketak, etab.

- Emakume eta gizonen arteko berdintasunaren arloan gutxienez 150 orduko prestakuntza espezifikoa (titulazio ofiziala):
- Euskara: Europako Erreferentzia markoaren C1 gaitasun maila.
- Sexu Delitugileen aurrekari eza frogatzen duen agiria aurkeztu beharko dute langileek.

➢ Hortaz, aukera dago bi langile horiek edota horietako bakar batek bi funtzioak egiteko: koordinatzailearena eta saioak ematearena.

10.- PROPOSAMENAK AURKEZTEA.

Kontratazio honetako espedientea, hari gaineratzen zaion dokumentazio teknikoa, pleguak eta dokumentazio osagarria Usurbilgo Udalaren **Kontratatzailearen Profilaren** bidez eskuratu ahalko dira,lizitazio honen iragarkia aipatu **Kontratatzailearen Profilean** argitaratuta agertzen den unetik aurrera eta proposamenak aurkezteko epea amaitu bitartean. Harremanetarako hona jo:

Joxe Martin Sagardia plaza, z/g – 20170 Usurbil
Tel. 943 371951
Helbide elektronikoa: kontratazioa@usurbil.eus

Kontratatzailearen Profila: www.usurbil.eus

Proposamenak bitarteko elektronikoak erabiliz aurkeztuko dira esklusiboki, 9/2017 SPKL legeko hamabosgarren xedapen gehigarrian ezarritako betekizunei jarraiki, Euskadiko Kontratazio Publikoko Plataforman argitaratu eta hurrengo egunetik kontatzen hasita HAMASEI (16) EGUN NATURALEKO epearen barnean, 14:00ak arte.

Proposamenak isil-gordekoak izango dira eta izaera hori bermatzeko neurriak hartuko dira proposamenak irekitzen diren unera arte.

Proposamenak modu elektronikoan aurkezteko beharrezkoak diren informazio eta zehaztapen teknikoak, dataren zifratzea eta baliozkotzea barne, Euskadiko Kontratazio Publikoko Plataforman (www.contratacion.euskadi.eus) daude.

10.1. AURKEZPEN ELEKTRONIKOA

Lizitazio elektronikoaren erabiltzaileentzako Arreta Zentroa: 945016298 (7:45 - 20:00) bitartean.
Interneteko helbidea: www.euskadi.eus
Helbide elektronikoa: laguntzakpe@euskadi.eus

10.2. PROPOSAMENEN EDUKIA

Enpresa lizitatzaileek **HIRU ARTXIBO ELEKTRONIKO ("A", "B" ETA "C")** aurkeztu beharko dituzte.

1)"A" ARTXIBO ELEKTRONIKOA "KONTRATATZEKO AHALMENA ETA KAUDIMENA" izendatuko da eta dokumentu hauek jasoko ditu:
I. eranskina: erantzukizunpeko adierazpen eredua.

2) "B" ARTXIBO ELEKTRONIKOA "BALIOESPEN TEKNIKO BATEN BAITAKOAK" izendatuko da eta dokumentu hauek jasoko ditu: plegu admnistratiboetako 8.3 atalean eta plegu teknikoetan zehaztutako baldintzak bete beharko ditu memoriak.

Artxibo honetan ez da sartu behar, inola ere ez, modu automatikoan zenbatu daitezkeen esleipen-irizpideei dagokion ezein datu, "C" artxiboan barneratu beharko direlarik horiek.

3) "C" ARTXIBO ELEKTRONIKOA "MODU AUTOMATIKOAN ZENBATETSI DAITEZKEEN IRIZPIDEEN ARABERAKOAK" izendatuko da eta, hauek jasoko ditu:

Proposamen ekonomikoa eta langileen eskarmentua zehaztea plegu honetako II. eranskin modura gaineratzen den ereduaren araberakoa.

11.- ALDAGAI EDO ALTERNATIBAK.

Ez dira onartzen.

12.- KONTRATAZIO MAHAIA.

Kontratazio Mahaia horrela osatuko da:

1. Agurtzane Solaberrieta Mesa, Alkatea, Presidentea; ordezkoa, Beñat Larrañaga Urdanplileta.
2. Garazi Etxeberria San Miguel, udal idazkaria, batzordekidea; ordezkoa, Olatz De Miguel Arnaiz.
3. Xabier Olano Jauregi, udal kontu-hartzailea, batzordekidea; ordezkoa, Aitziber Iraola Eizaguirre, errenta teknikaria.
4. Ainara Diaz Azpiolea , Parekidetasun eta Berdintasun arloko burua, batzordekidea; ordezkoa, Maider Irisarri Iriondo, gizarte langilea.
5. Ainara Mujika Errazkin teknikari juridikoa, Idazkaria; ordezkoa, Olatz De Miguel Arnaiz, Kontratazio eta Pertsonal Teknikaria.

Halaber, Mahaiak bertaratzea eskatutako udal teknikari arduradun guztiak bertaratu ahalko dira, aholkularitza lanak betetzeko.

13.- DOKUMENTUAK KALIFIKATZEA.

Proposamenak aurkezteko epea amaitutakoan, honela jokatuko da:

1)"A" ARTXIBOA IREKITZEA:

"A" artxibo elektronikoa aztertuko da, aurretiko baldintzak betetzen direla egiaztatzeko. Beharrezkoa izanez gero, Kontratazio Mahaiak gehienez ere hiru egun naturaleko epea emango du lizitatzaileak

akatsak zuzen ditzan.

2) "B" ARTXIBOA IREKITZEA:

"A" artxiboko dokumentazioa baloratu ondoren, "B" artxiboa ireki eta aztertuko da.

Kontratatzailearen Profilean adierazitako egunean eta orduan, eta *streaming* bidez transmitituko da publikoarentzat plataformaren bidez. *Streaming* bidezko lizitaziorako esteka:

- Euskaraz: https://apps.euskadi.eus/appcont/lizitazioa/directo_usurbil_eu.html
- Gaztelaniaz: https://apps.euskadi.eus/appcont/lizitazioa/directo_usurbil_es.html

"B"artxiboa ireki ondoren, Kontratazio Mahaiak dokumentazioa helaraziko dio hura baloratzeko ardura duen teknikariari, eta teknikari horrek balorazio txostena egin beharko du.

3) "C" ARTXIBOA IREKITZEA:

"B" artxiboko dokumentazioa baloratu ondoren, "C" artxiboa ireki eta aztertuko da.

Kontratatzailearen Profilean adierazitako egunean eta orduan, eta *streaming* bidez transmitituko da publikoarentzat plataformaren bidez. *Streaming* bidezko lizitaziorako esteka:

- Euskaraz: https://apps.euskadi.eus/appcont/lizitazioa/directo_usurbil_eu.html
- Gaztelaniaz: https://apps.euskadi.eus/appcont/lizitazioa/directo_usurbil_es.html

14.- ESLEIPENA ETA FORMALIZAZIOA.

Kontratazio Mahaiak, Sektore Publikoko Kontratuen Legeko 150.1. artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz, aurkeztutako proposamenak kontratazio-organora bideratuko ditu.

Kontratazio Organoak eskaintzak sailkatuko ditu eta eskaintza onena aurkeztu duen enpresa lizitatzailea deituko du, eskakizuna jaso eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita **hamar egun balioduneko epean,** eskatutako dokumentazioa aurkeztu dezan. Dokumentazioa jaso eta hurrengo bost egun balioduneko epean, SPKLren 150.3 artikuluak xedatutakoari jarraituz, esleipena egingo da.

III.- KONTRATUA EGIKARITZEA

15.- KONTRATUAREN ARDURADUNA.

Kontratua egikaritzeaz arduratuko den udal teknikaria, SPKL legeko 62. artikuluan aurreikusten diren funtzioekin, Parekidetasun saileko teknikaria izango da.

16.- KONTRATUA EGIKARITZEA.

Zerbitzuak egiterakoan, agiri honetan dauden baldintzak bete beharko dira, bai eta espedienteari erantsitako xehetasun teknikoak ere, halakorik egonez gero. Kontratua Administrazioaren zuzendaritza, ikuskapen eta kontrolaren pean burutuko da, eta Administrazioak idatziz nahiz ahoz erabili

ahal izango ditu ahalmen horiek.

Kontratistari edo haren agindupekoei egotz dakiekeen egite edo ez-egiteren baten ondorioz, Administrazioak uste izaten badu kontratua behar bezala burutzea kolokan dagoela, kontratua behar bezala burutu dadin beharrezkotzat jotzen dituen neurriak har daitezela agindu ahal izango du. Esleipendunak, ordainketa osagarri bat jasotzeko eskubiderik gabe, kontratua egoki garatu eta bete dadin beharrezkotzat jotzen diren zerbitzuak eman beharko ditu, hala nola, laneko bileratara edo informazio-bileratara joan.

Kontratuaren jabeak bere gain hartzen ditu kontratua burutzeak dakartzan arriskuak. Kontratistak, zerbitzua antolatzerakoan eta ematerakoan, zehazki bete beharko ditu orri honetan jasotako baldintzak eta agindu teknikoen orriko espezifikazioak. Gainera, Udalak zuzenduko, ikuskatuko eta kontrolatuko du zerbitzua, eta horrek idatziz zein ahoz gauzatuko ditu eskumen horiek.

Kontratista izango da egindako lanen eta emandako zerbitzuen kalitate teknikoaren erantzule. Kontratista izango da erantzule, baita ere, kontratua betetzean ez-egiterik, akatsik, egokia ez den metodorik edo ondorio okerrik sortzen bada, eta horrek ondoriorik eragiten badie Administrazioari edo hirugarrenei.

Kontratistak beharrezko ekipamendu eta bitartekariak ekarri beharko ditu lanak ondo gauzatu eta kontratua aipatutako epean bukatzeko. Horrez gain, beharrezko langileak kontratatu beharko ditu.

Kontratuaren jabeak arduradun bat izendatuko du, kontratuaren jabearen eta Udaleko langileen arteko harremanak zuzenean koordinatzeko. Udaleko Zerbitzu Teknikoen eta kontratuaren jabearen artean egin behar diren bileren kopuru eta maiztasuna eta erabili beharreko informazioa Udalak zehaztuko du. Era berean, Udalak informazioa bildu eta esleipenduna egiten ari den lana gainbegiratu ahal izango du.

Kontratua betetzeko izaera pertsonaleko datuak erabili behar baldin baditu, izaera pertsonaleko datuak babesteko indarrean dagoen araubidea beteko du.

17.- KONTRATUA EGIKARITZEN DEN BITARTEAN HIRUGARRENEI ERAGINDAKO KALTEEN ONDORIOZKO KONTRATISTAREN ERANTZUKIZUNA

Kontratatutako enpresa izango da kontratua egikaritzeko egin beharreko eragiketen ondorioz eragiten diren kalte eta galeren erantzule, Sektore Publikoko Kontratuen Legeko 196. artikuluan xedatutakoari jarraiki.

18.- KONTRATUA ALDATZEA

Administrazioak aukera izango du kontratua aldatzeko, interes publikoko arrazoiak direla medio, Sektore Publikoko Kontratuen Legeko 203. artikuluan eta hurrengoetan aurreikusitako kasu eta modutan.

19.- PRESTAZIOA HARTZEA ETA BERMEALDIA

Sektore Publikoko Kontratuen Legeak aurrikusten dituen ondorioetarako, hilabeteko bermealdia ezartzen da. Berme epean kontratistaren kargu joango lirateke lanetan eta egindako prestazio guztietan ager daitezkeen akats eta ikusiezinezko akats guztiak.

20. EZ-BETETZEEN ONDORIOZ KONTRATISTARI EZARRITAKO ZIGORRAK

20.1. Kontratua egikaritzeko epeak ez betetzea

Kontratista, berari egotz dakizkiokeen arrazoiengatik, berandutzen bada kontratua egikaritzeko epean (epe osoa zein, halakorik bada, epe partzialak), administrazioak bi aukera izango ditu: kontratua suntsiaraztea (eta adjudikaziodunak bermea galdu), edo honako zigor hau ezartzea: zerbitzua behar bezala ematen berandutzen den eguneko 0,60 euro kontratuaren prezioko 1.000 euroko (BEZa aparte).

Berandutzeagatik ezartzen diren zigorren zenbatekoa kontratuaren prezioaren % 5en multiplo batera heltzen den bakoitzean, kontratazio-organoak aukera izango du kontratua suntsiarazteko, edo, bestela, kontratua egikaritzen jarrai dadin agintzeko, zigor gehiago ezarrita.

20.2. Prestazioen egikaritze partziala ez betetzea

Kontratistak ez badu betetzen kontratuan zehaztutako prestazioen egikaritze partziala, eta horren errua berari egozten ahal bazaio, administrazioak bi aukera izango ditu: kontratua suntsiaraztea, edo, bestela, kontratuaren prezio osoaren %10en baliokidea den zigorra ezartzea.

20.3. Prestazioa oker gauzatzea

Prestazioa oker gauzatzen bada, administrazioak zigorrak ezarri ahal izango ditu; horietako bakoi-

tzaren zenbatekoa ez da izango kontratuaren prezioaren % 10etik gorakoa (BEZa aparte), eta guztirako zenbatekoak ezin izango du gainditu prezioaren % 50.

20.4. Ingurumenaren, gizartearen edo lanaren arloko betebeharrak ez betetzea

Kontratistak ez baditu betetzen ingurumenaren, gizartearen edo lanaren arloko betebeharrak, batez ere soldatak ordaintzen behin eta berriro atzeratzen bada edo hitzarmen kolektiboetatik eratorritakoak baino soldata-baldintza okerragoak doloz eta era larrian aplikatzen baditu, SPKLren 201. artikuluan ezarritakoa aplikatuz, administrazioak zigorrak ezarri ahal izango dizkio ez-betetze horietako bakoitzagatik; horietako bakoitzaren zenbatekoa ez da izango kontratuaren prezioaren % 10etik gorakoa (BEZa aparte), eta guztirako zenbatekoak ezin izango du gainditu prezioaren % 50.

20.5. Azpikontratistekiko betebeharrak ez betetzea

SPKLren 217. artikuluan xedatutakoa gorabehera, kontratistak azpikontratistekin dituen betebeharrak betetzen ez baditu, administrazioak zigorrak ezarri ahal izango dizkio ez-betetze horietako bakoitzagatik; bakoitzaren zenbatekoa ez da izango kontratuaren prezioaren %10etik gorakoa (BEZa aparte), eta guztirako zenbatekoak ezin izango du gainditu kontratuaren prezioaren %50.

20.6. Langileak subrogatzeko betebeharrak ez betetzea

Kontratistak ez baditu betetzen kontratuaren xede den zerbitzuak ukitutako langileak subrogatzearen arloan dituen betebeharrak SPKLren 130.4 artikuluan ezarritakoa aplikatuz, administrazioak zigorrak ezarri ahal izango dizkio ez-betetze horietako bakoitzagatik; bakoitzaren zenbatekoa ez da izango kontratuaren prezioaren %10etik gorakoa (BEZa aparte), eta guztirako zenbatekoak ezin izango du gainditu prezioaren %50.

21. AZPIKONTRATAZIOA

Kontratistak prestazioaren gauzatze partziala azpikontratatu dezake hirugarren batzuekin. Nolanahi ere, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 215. eta 216. artikuluetan ezarritako eskakizunak bete beharko ditu azpikontratazio horrek.

22. KONTRATUA LAGATZEA

Kontratua lagatzeko aukera egongo da Sektore Publikoko Kontratuen azaroaren 8ko 9/2017 Legeko

214.artikuluko muga eta betekizunekin.

23. KONTRATUA ETETEKO ARRAZOIAK

Kontratua eteteko arrazoiak dira SPKL-ko 211. eta 313. artikuluetan ezartzen direnak.

24. ADMINISTRAZIOAREN ESKUMENAK

Administrazioari dagozkion kontratua interpretatu, hura betetzean agertzen diren zalantzak ebatzi, kontratua interes publikoko arrazoien ondorioz aldatu, hura etetea adostu eta haren ondorioak zehazteko eskumenak, Sektore Publikoko Kontratuen Legean nahiz hartako Erregelamendu Orokorrean ezarritako mugen barnean eta horietan jasotako betekizun eta ondorioekin.

25. HIZKUNTZAREKIN LOTUTAKO BETEKIZUNAK

Zerbitzu hartzaileekin erabilera hizkuntza

Kontratuaren xede den prestazioaren berezko ezaugarriak kontuan hartuta, zerbitzu hizkuntza euskara izango da. Usurbilgo Udalak onartutako hizkuntza-irizpideei jarraituz, herritarrekin eta udal langileekin ahozko harremana euskaraz egingo da. Kasu guztietan herritarren hizkuntza eskubideak bermatuko dira.

Izena ematen duten partaideen arabera, euskaraz eta gaztelaniaz egitea behar izanez gero, euskarazkoari lehentasuna emango zaio. Saioren bat gaztelaniaz egin behar denean, euskarriak euskaraz izango dira; eta saioak euskaraz direnean eta partaideren batek saioa jarraitzeko zailtasunak baditu, gaztelaniaz eskainiko zaio euskarria.

Hizkuntza paisaia

Errotuluak, oharrak, seinaleak, kartelak eta gisa bereko komunikazio orokorrak euskaraz egingo dira.

Harremanak administrazioarekin

Enpresa adjudikazio-hartzaileak Usurbilgo Udalaren hizkuntz araudiaren arabera jokatuko du, kontratuaren xede diren jarduera guztietan; eta beraz, enpresak Udalarekin dituen ahozko zein idatzizko harremanak euskaraz izango dira. Hartara, Udalari aurkeztu beharreko lanak euskaraz egingo dira: memoria, lan arriskuak prebenitzeko plana...

Era berean, udaletik jasotzen diren idatziak euskaraz jasoko ditu enpresa adjudikazio-hartzaileak.

26. HIZKUNTZAREKIN LOTUTAKO BALDINTZAK ZEIN NEURRITAN BETE DIREN JARRAITZEA

Kontratua sustatzen duen administrazio-unitatea izango da bertan ezarritako hizkuntza-baldintzak betetzen direla ziurtatzeko jarraipena egiteaz arduratuko dena, gainerako baldintzen jarraipena egiten duen antzera eta antzeko epeekin, Euskara Zerbitzuari horren berri emanez. Azken horrek onarpena eman edo neurri zuzentzaileak proposatuko ditu.

Sektore Publikoko Kontratuen Legeko 62. eta 210. artikuluekin bat etorriz:

- Kontratuaren arduradunak kontratua nola betetzen den ikuskatuko du, hizkuntza-baldintzak behar bezala betetzen diren ziurtatzeko jarraipena egingo du, eta horren inguruan beharrezko erabakiak hartu eta jarraibideak emango ditu.

- Ikuskaritza kontratu bukaeran ez ezik, modu jarraian ere egingo du kontratuaren arduradunak, jarraipen espezifikorako euskarriak erabilita, sor daitezkeen hutsegiteak zuzentzekoak.

27. EGIKARITZEAREN BALDINTZA BEREZIAK

Kontratua egikaritzeko jarraian adierazten diren baldintza bereziak ezartzen dira. Horiek urratzen baldin badira zehapenak ipiniko dira, kontratuzko funtsezko betebehar izaera ematea berariaz zehazten diren horietan izan ezik, horiek urratzea kontratua eteteko arrazoi izango delarik.

27.1. Egikaritzearen baldintza bereziak lan, gizarte segurantza eta laneko segurtasun eta osasun arlotan

Enpresa kontratista lan arloari, Gizarte Segurantzari eta laneko segurtasun eta higieneari dagokienez indarrean diren legezko xedapenak betetzera derrigortuta dago kontratuaren xede diren zerbitzuetan erabiltzen dituen langileekiko, Administrazioa ez-betetze horren ondoriozko erantzukizunetik salbuetsia geratuko delarik.
Gainera, enpresa esleipendunak, kontratua sinatu aurretik, kontratuaren xede den jarduera burutzen duten langileei aplikagarri izango zaien hitzarmen kolektiboa adierazi beharko du.
Kontratua gauzatzen den bitartean, kontratatutako enpresak ordaindu beharko du langilearen kategoria profesionalari aplikagarri zaion hitzarmen kolektiboan jasotako soldata, eta soldata hori ezingo da inola ere izan hitzarmenekoa baino txikiagoa.

Kontratistak ezingo du aldaketarik egin zerbitzuari atxikitako langile teknikoei dagokienez, aldez aurretik Udalaren baimenik ez baldin badu. Langile teknikoak ordezteko pertsonek, gutxienez, eskaintzan emandakoen baliokide diren ezaugarri profesionalak bete beharko dituzte.

27.2. Lan-kontratuetan subrogatzeko baldintzei buruzko informazioa.

Legezko arau, talde-hitzarmen edo eraginkortasun orokorreko talde-negoziazioko akordio batek adjudikaziodunari lan-harreman zehatzetan enplegu-emaile gisa subrogatzeko betebeharra ezartzen badio, lizitatzaileei informazioa emango zaie subrogazioak ukitutako langileen kontratuen baldintzei buruz, neurri horrek ekarriko dituen lankostuak zehatz-mehatz balioets ditzan. Informazio hori SPK-Lren 130. artikuluan ezarritakoa betez emango da.

Kontratu honen enpresa adjudikazioduna atxikitako langileen enplegu-emailea izanez gero, lehen

aipatutako informazioa eman beharko du, kontratu arduradunak hala eskatuz gero. Edonola ere, informazioaren barruan, subrogatuko diren langileen zerrendak emango ditu, alderdi hauek adieraziz: aplikagarria den talde-hitzarmena eta kategoriaren xehetasunak; kontratu mota; lanaldia; antzinatasun data;eta kontratuaren epemuga.

27.3. Egikaritzearen baldintza bereziak hizkuntzari dagokionez

Errotuluak, oharrak, seinaleztapenak eta ipintzen diren gainerako komunikazio orokorrak piktograma bidez egingo dira, euskaraz idatzitako azalpen mezu batek lagunduta. Piktograma bat erabiliz egin ezin baldin bada, euskaraz egingo dira mezu ezagun eta ulergarriak direnean. Aurreko bi kasuak ezinezkoak baldin badira, elebitan egingo da, euskarari lehentasuna emanez, aldez aurretik administrazioak hala baimenduta.

IV.- ARAUBIDE JURIDIKOA ETA JURISDIKZIO ESKUDUNA

28.- ARAUBIDE JURIDIKOA.

1.- Kontratu hau zerbitzuak emateko da, Sektore Publikoko Kontratuen Legea onesten duen, azaroak 9ko 9/2017 Legearen 17. artikuluak aurreikusitakoaren arabera. Administrazio-kontratua izango da, eta herri-administrazioek kontratazioetarako erabiltzen dituzten printzipio komunen arabera arautuko da, eta beti ere kontratazio publikoaren arloan Europako erkidegoen zuzenbideak zehaztutako printzipio komunen arabera.

Aurreko paragrafoan ezarritakoaren arabera, honako hauek izango dira kontratua arautuko dutenak:

a.- Baldintza ekonomiko-administratiboen plegu hau.

b.- Lizitazioa eta kontratua egiterakoan eta bi horiek garatzen diren bitartean indarrean dauden Toki Araubideko nahiz Herri Administrazioetako Kontratuetako legezko eta arauzko xedapenetan jasotako kontratazio-arauak.

Zehazki, honako arau hauek aplikatuko dira: 7/1985 Legea, apirilaren 2koa, toki-araubidearen oinarriak arautzen dituena; 781/1986 Errege Lege Dekretua, apirilan 18koa, toki-araubidearen arloan indarrean dauden xedapenen testua bategina onesten duena; azaroaren 9ko 9/2017 Legea, Sektore Publikoko Kontratuen Legea onesten duena; eta honako hau izango da arauzko xedapena: 773/2015, Errege Dekretua abuztuaren 28koa, 817/2009 Errege Dekretua, maiatzaren 8koa, Sektore Publikoko Kontratuen Legea partzialki garatzen duena, eta 1098/2001 Errege Dekretua, urriaren 12koa, herri-administrazioen Kontratuen Legearen Erregelamendua onesten duena, aurrekoei kontra egiten ez dien neurrian.

c.- Administrazio-zuzenbideko gainerako arauak.

2.- Zuzenbide pribatuko arauak zuzenbide osagarri gisa erabiliko dira, kontratua interpretatu, bete edo iraungitzerako garaian eta kontratua indarrean dagoen bitartean zalantzak sortu eta zalantza horiek aurreko paragrafoan aipatutako xedapenen bidez argitu ezin direnean. Edonola ere, zuzenbide pribatuko arauak aplikatzeko, kontuan hartu beharko dira administrazioaren eskumenak.

3.-Erabat teknikoak diren gaietan izan ezik, plegu honetako xedapen guztiak espedienteari lotutako

gainerako aukerako baldintzen gainetik egongo dira.

29. JURISDIKZIO ESKUDUNA

Kontratu honen ondorioz sor daitezkeen gai eztabaidagarriak kontratazio-organoak ebatziko ditu; administrazioaren bideari amaiera emango diote organoaren erabakiek, eta zuzenean aurkaratu ahal izango dira administrazioarekiko auzien jurisdikzioan. Horrek ez du kentzen, hala badagokio, kontratazioaren alorreko errekurtso berezia jarri ahal izatea Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 44. artikulutik 60. artikulura artekoek araututakoaren arabera. Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legean araututako edozein errekurtso ere aurkeztu ahal izango da.

Usurbilgo Udala

ID.05/2022-0119
2022DEKR0326

I ERANSKINA: ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPEN EREDUA ("A" ARTXIBO ELEKTRONIKOA)

_____, zeinak jakinarazpenak jasotzeko helbidea hemen duen: _____, _____, ___zk., eta IFZ _____, _____ enpresaren, IFZ _____ ordezkari gisa,

BERE ERANTZUKIZUNPEAN ADIERAZTEN DU:

LEHENA. USURBILGO ESKOLETAN HEZKIDETZA ETA HERRIAN BERDINTASUNA ETA TRATU ONA BULTZATZEKO ZERBITZU KONTRATUAREN lizitazioan parte hartu nahi duela.

BIGARRENA. Zehaztutako kontratuak 9/2017 Legearen 140. Artikuluaren lehenengo atala betetzen duela, azaroaren 8koa, Sektore Publikoko Kontratuei buruzkoa, zeinaren bitartez Espainiako araudi juridikoari egokitzen zaizkion Europar Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014/23/UE eta 2014/24/UE Zuzentarauak, 2014ko otsailaren 26koak, obren esleipendun izan ahal izateko, are zehatzago:

I. Izaera juridikoa duela eta, dagokionean, ordezkaritzakoa.

II. Kaudimen ekonomiko, finantzario eta tekniko edo profesionaleko baldintzak betetzen dituela.

III. Kontratatzea debekatuta ez duela, 9/2017 Legearen 71. Artikuluan, azaroaren 8koa, Sektore Publikoko Kontratuena, bildutakoaren arabera, eta indarrean dauden xedapenek inposatutako zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzakoak betetzen dituela.

IV. Espainiako Epaitegi eta Auzitegien Jurisdikzioaren mende dagoela, zuzenean edo zeharka kontratutik sor daitezkeen arazo guztientzat eta, uko egingo zaiola, edozein kasutan ere, lizitatzaileari dagokion atzerriko edozein foruri.

V. Hurrengoa dela jakinarazpenak bidaltzeko erabiliko den helbide elektronikoa: _____

VI. Adierazpen honetan eskatzen diren dokumentu guztiak indarrean dituela egiaztatzeko konpromisoa duela, eta kontratua esleitzen bazaio, edo eskatzen zaionean aurkeztu ahal izango dituela.

Eta hala ager dadin, adierazpena sinatzen dut.

II. ERANSKINA: MODU AUTOMATIKOAN ZENBATU DAITEZKEEN IRIZPIDEEI BURUZKO PROPOSAMENA (“C” ARTXIBO ELEKTRONIKOA)

Plegu hauen objektu diren obra egiteko hurrengo eskaintza egiten duela:

PREZIOA:. konpromisoa hartzen dudala aipatu lana ondorengo prezioan egiteko:

1. Esku-hartze zuzeneko saioak _____ordu urtean x _____euro/orduko BEZ a gabe= _____euro/urtean BEZa gabe.
2. Koordinazioa_____ordu urtean x _____euro/orduko BEZ a gabe= _____euro/urtean BEZa gabe.

Prezioaren barruan gai guztiak sartzen dira: zergak, gastuak eta zergen arloko edozein tasa , bai eta esleipendunaren industri onura ere.

ZERBITZUA EMANGO DUTEN LANGILEEN ESKARMENTUA ANTZEKO PROIEKTUETAN : Iangile bakoitzaren eskarmentua, kontratuaren xedearekin erlazionaturik egonez gero: urte bakoitzeko puntu 1, gehienez ere 6 puntu guztira.
Langileen esperientzia hau akreditatzen duen enpresako ziurtagiriak aurkeztu beharko dira.

.....langilea	……urte
.....langilea	…….urte

Eta jasota gera dadin, honako hau sinatzen dut.